



Basque Writing 30

JAZARPENAREN AURPEGI BERRIAK



1914-18ko Mundu Gerra amaitu ostean, lau urtez bizi izandakoa berriz errepika ez zedin, idazle multzo batek PEN International sortu zuen 1921ean. Elkar ulertzearen eta errespetatzen alde egiten zuten eta gorroto guztiak desagerrarazteko konpromisoa hartzen zuten. **Edozein gatazka hitz eginez konpondu behar zela aldarrikatzen zuten**, bortizkeria alboratuta.

Ehun urte hauetan ezer gutxi aurreratu da hitzarekiko errespetuan. **Hitza bortxaz ezabatzen da gerra zein bake garaian** eta iritzi askearen jazarpenak forma berriak hartzen ditu demokrazia formaletan. Gobernuek lege berriak egiten dituzte (Mozal Legea kasu), hedabideak itxi egiten dituzte, idazle eta kazetariak jazartzen dituzte eta botere faktikoek itomen ekonomikoa erabiltzen dute iritzi ezberdintasuna ezabatzeko.

Ale honetara jazarpenaren aurpegi berriak ekarri nahi izan ditugu.

Batetik **Maddalen Subijanak** aletu ditu Eus-

kal PENek azken 20 urteetan salatu eta nazioartera eraman dituen kasu esanguratsuenak, non kazetariak eta kantariak pairatu duten adierazpen askatsunaren falta. Kazetari horietariko bat, ARGIA aldizkariakoa, **Axier Lopez** izan da, eta hausnarketa mamitsua eskaini du orriotan. **Carles Torner**-ek, PEN Internationaleko zuzendari exekutibo ohiak (2014-2021) Ukraina eta Errusiaren arteko gatazkan fokatu du hausnarketa. **Laura Huerga**, PEN Catalá-ko egungo presidentea eta Mozal Legean aditua, botereaz eta zentsuraz mintzatu da. **Martxelo Otamendik**, *Euskaldunon Egunkaria*-ko eta *Berria* egunkarietako zuzendari ohiak, bortizkeria hurbiletik ezagutu duen kazetariak, bi elkarrizketa egin ditu. Lehena **Itziar Ituñori** egin dio, manifestazio batera joatearren kontratu komertzialak galdu dituen antzezleari. Bigarrena **Iñigo Santxo** abokatuari, auzitegian defendatu izan dituelako jazarriak izan diren pertsonak eta kolektiboak, Katxiporreta pailazoak horien artean. Artikuluetan agerian gelditzen da disidentzia oro isilarazteko moduak anitzak direla.

Laura Mintegi
Euskal PEN





Idazluma jazarriak XXI. mendeko euskal gizartean

PEN erakundeak sorreratik jarri du erdigunean idazle espetxeratu, jazarri eta erbesteratuen aldeko eta adierazpen-askatasunaren aldeko konpromisoa, eta WiPC (*Writers in Prison Co-mmittee*) batzordearen bidez urtero argitaratzen du **Caselist** delakoa. Irakurleak, jarraian, Euskal PEN zentroak XXI. mendean salatu dituen kasu aipagarrienetako batzuk aurkituko ditu.

Egunkaria euskara hutsezko egunkaria 2003ko otsailean itxi zuten Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, baita zuzendaritzako hamar kide atxilotu ere, hedabidea ETAK finantzatzen zuela argudiatuta. Bost egunez inkomunikatuta egon ondoren, atxilotuetako bost espetxeratu zituzten. Batzuek torturak eta tratu txarrak jaso izana salatu zuten. 2010ean, Espainiako Auzitegi Nazionalaren amaierako epaiak egunkaria ixteko arrazoirik ez zegoela baieztatu zuen. *Egunkaria* afera *PEN International*-era ere heldu zen, eta erakundeak Martxelo Otamendi, egunkariko zuzendaria, gonbidatu zuen 2004ko WiPC biltzarrera. Eta Egunkariak ari garela, ezin dugu ahanzi kasu honek badituela aurrekariak, 1998an euskarazko **Egin** egunkaria ere itxiarazi baitzuten. *Egin*-en zuzendaria eta zuzendariordea, Xabier Salutregi eta Teresa Toda hurrenez hurren, 8 eta 6 urtez egon ziren kartzelan.

Iñaki Egaña idazle eta historialaria New Yorkeko JFK aireportuan atxilotu, eta herrialdean sartzea debekatu zioten 2006ko martxoan. Ondorioz, ezin izan zituen burutu AEB-tako Jesus Galindez politikariaren inguruan egitekoak zituen dokumentazio-lanak. Atxiloketaren arrazoiak aipatu ez arren, haren lanari buruzko galdera ugari egin zioten Egañari, horietako asko AEB-etako inteligentzia-zerbitzuetan jardundako euskaldunei buruz egin dituen ikerketa eta argitalpen historiografikoei buruzkoak.

Iñaki de Juana ETako presoaren kartzelal-

dia amaitzeaz zela, prentsan bi artikulu argitaratzeagatik epaitu zuten 2006an, eta 96 urteko espetxe-zigorra eskatu. Hona hemen Euskal PEN Klubak orduan kaleratutako oharra: «Euskal PEN Klubeko kideok, ez dugu onartzen onartezina dena, hau da, iritzi delitupean inor kartzelaturik egotea. Eta aipatu de Juana Chaos jauna kartzelan mantentzeko motiboa iritzi-delitua ez baldin bada, halaxe esan dezatela, dituzten argudioak erabil ditzatela, argi azal dezatela zerk eraman dituen horrelako erabakirik hartzera». *PEN International*-era ere iritsi zen kasua.

Euskal musikariak ere zentsuraren eta jazarpenaren jomuga izan dira abestien hitzak direla kausa. Frankoren diktaduraz geroztik, Negu Gorriak musika-taldeari jarri zitzaion lehen aldiz salaketa abesti batengatik. 2002an gertatu zen hori, Rodriguez Galindo Guardia Zibil jeneralearen inguruko abesti batengatik hain zuzen, hitzek kazetari batzuek koronelari egotzitako narkotrafiko-kasua aipatzen zuten eta. Sociedad Alkoholika taldea ere justiziarekin tirabirak izandakoa da; taldekideak Auzitegi Nazionalan epaitu zituzten 2007an, musikarekin «terrorismoa goratzea» eta «biktimak iraintzea» leporatuta. Akusazioak akusazio, absolbituak izan ziren, urte batzuk lehenago Negu Gorriak taldearen kasuarekin gertatu zen bezalaxe. Arrazoi politikoak tarteko, Berri Txarrak eta Su Ta Gar taldeek eta Fermin Muguruza abeslariak ere beren kontzertuak zentsuratu izana salatu izan dute.

Xabier Silveira idazle eta bertsolariaren kasuan erlijioa nahasten da; izan ere, *Gara* egunkarian ‘Me cago en la Virgen’ (‘Kaka ama birjinarentzat’) izeneko artikulua argitaratzeagatik isuna jarri zion Gipuzkoako Fiskaltzak 2008an. Espainia estatu akonfesionala izanagatik ere, «Ama Birjina iraintzea eta kristauen sinesmenen aurka egitea» leporatu zitzaion.



Gara egunkariak Polizia Nazionalak legez kanpoko telefono-entzuketak egin zizkiola salatu zuen 2008an. Telefono-konpainiari linea telefoniko bat aldatzeko eskatzean jakin zuten entzuketak gertatzen ari zirela. Poliziak, ordea, entzuketak ukatu egin zituen.

El Correo egunkariak ere pairatu izan du jazarpena; 2009an, hain justu, ETak lehergailu bat jarri zion egunkariari, haren ildo editoria-larekin bat egiten ez zuelako. Euskal PENek prentsa-askatasunaren aurkako eraso salatu zuen beste hainbat eragilerekin batera.

Asel Luzarraga euskal idazlearen eta Euskal PENen zuzendaritzako kide ohiaren kasua 2009an gertatu zen Txilen. Temucoko Justizia idazkaritzan lehergailu bat jartzea leporatuta, hilabeteak eman zituen espetxean. Euskal PENek hartu zuen kasua bere gain, eta gizarte-mugimendu handia sortu zen idazle askoren babesarekin. Argi zeukaten idazlea errugabea zela eta haren militantziak eragindako atxiloteta bat izan zela; izan ere, Luzarraga maputxeen aldeko ekintzaile izanik, zenbait testu idatziak zituen haien egoera salatzen.


Euskalerria irratia 1987tik 2015era arte egon zen lizentziarik gabe emititzen. Nafarroan euskara hutsean emititzen duen irrati bakarra lizentzia-lehiaketara aurkeztu zen 1997an, eta, lizentzia jasotzeko baldintzak bete arren, Nafarroako Gobernuak behin eta berriz jarri zion betoa 2015ean lizentzia lortu zuen arte. Irratiak ez ezik, telebistak ere izan ditu halako oztopoak Nafarroan, behin baino gehiagotan jarri baitzaizkio trabak **EITB** euskal irrati-telebista publikoaren seinaleari.

Apurtu.org webgunea Auzitegi Nazionalaren aginduz itxi zuten 2011n, eta hedadeko lau arduradun atxilotu zituzten Askatasuna alderdi politikoaren «propaganda aparatuko» kide izatea egotzita. Arduradun batek 18 hilabete igaro zituen espetxean. Urte gutxiren ondoren, 2013an, sumarioa artxibatu egin zen. Azken hamarkadan beste zenbait

hedabide digital egon dira antzeko epaiketa politikoetan sartuta; Topatu.info, Gaztesarea, Burlata.herria eta Ateak Ireki atariak kasu.

Komikilariak ere, irudiak eta hitzak lantresna dituzten aldetik, sortzaile jazarri eta zentsuratuen zerrenda honetara gehitu nahi ditugu. Umorearekin lotura estua duten bi kasu datozkigu burura. Batetik, Deia egunkariko gehigarri satirikoan Josetxu Rodríguez eta Javier Ripa umoregile grafikoek eta Nicola Lococo artikulugileak Espainiako erregearen aurpegirekin egindako foto-muntaiaren 2006ko epaiketa. H28 euskarazko hilabetekari satirikoa ere zentsura jasandakoa da 2016ko Nafarroako Komiki Azokan. Bertan, Opus Dei talde kristaua eta pederastia lotzen zituen irudi bat eta Guardia Zibila eta tortura-kasuak lotzen zituen beste bat zentsuratu zitzaizkion.

Pablo González kazetariaren kasua dugu berriena. 2022ko otsailaren 28an atxilotu zuten Poloniako zerbitzu sekretuek Przemysł hirian, Ukrainiako mugatik hurbil, Ukrainiako migrazio-krisiaren inguruan informatzen ari zela. Poloniako justiziak Errusiako inteligentzia-zerbitzuen jardueretan parte hartzea leporatu zion, baina oraingoz ez du inolako frogarik aurkeztu. Bitartean, Gonzalezek behin-behineko espetxealdian jarraitzen du epaiketaren zain. EFJ Europako Kazetarien Federazioak hainbatetan salatu duenez, «Onartezina da EBko estatu kide batek kazetari bat halako bidegabekeriaz atxilotzea. Pablo Gonzalezek hiritar eta kazetari gisa dituen oinarrizko eskubideak urratzeaz gain, prentsa-askatasuna eta informatua izateko eskubidea ere urratzen ari dira». Eta haxe salatu dute eta salatzen jarraitzen dute beste hainbat eta hainbat eragilek.



Maddalen Subijana
Itzultzailea



Lokazteko askatasuna?

Palestinan kazetariak ehunka hiltzen ditu sarraskia lehen lerrotik kontatua izatea nahi ez duenak. Ukrainak, Polonia proxy-aren bitartez, **Euskal Herriko kazetari bat bi urtez preso dauka**, epaiketak egin gabe, gerraz informatzeagatik. Eta Euskal Herrian, gobernu batek **adierazpen askatasunaren izenean hedabide bat itxiaraztea zer den ezagutu dugun lurralde honetan**, lokatz artean itotzen ari zaigu kazetaritza.

3.300 egun baino gehiago daramatza indarrean askotariko askatasun eta eskubideak urratzen dituen **Mozal Legeak**. Hemen ez ezik nazioartean parekorik gabeko aurkakotasuna eragin zuen lege makurra **2015ean jaio zenean bezain bizirik dago**, bera indargabetu nahi zutenak orain gobernuan izanik ere. Agintariei –uniformedun, togadun ala gorbatahun bertsiro orotan– are botere handiagoa ematen dien lege bat indargabetzeak lehentasuna izateari utzi zion agintera heldu bezain pronto, antza.

Baina hori ez da kazetaritza independente eta zintzoa egiteko Euskal Herriaren zati honetan daukagun arazorik handiena, Espainiako Erresumako botere-guneetan lubakitura dauden oligarkiek eragindakoa baizik. Herritarren bozken gainetik dauden sektore horiek ageriago geratu dira azken urteotan, **botere judizial zein polizialetan adibidez**. Bide batez, **ultraeskuinarekin batera horiek dira Mozal Legea defendatzen jarraitzen duten "sektore" bakarrak**. Baina "itzalpeko (edo estolderietako) botere" hori hedabideetan azaldu zaigu gordinen. "Kalean jendeak zertaz hitz egiten duen" ezartzeko gaitasuna duen hedabide-multzo horrek **boterearekiko duen menpekotasuna biluzik agertu da** hainbat kasu entzutetsuren eskutik, zeinetan kazetaritzaren gainetik hedabide horien jabeen interesen de-

fentsa gailendu den oso era zabarrean. Horien erruz, adierazteko eta informatzeko askatasunarekin estuki lotutako gure lanbidea, propagandaren, hooliganismo politikoaren, harrokeriaren edo prefabrikatutako eztabaiden sinonimo bilakatu dute askoren begitara.

Telebista eta egunkari handi horiei gehitu behar zaie azken hamarkadan sortutako sasi-hedabide saldoa. Hedabide digitalak dira gehienak, diru-iturri nagusi dutenak alderdi politiko eskuindarrek finantzaturako fundazioen ekarpenak, eta alderdi horiek kudeatutako erakunde publikoen publizitatea. **Informazio partziala, engainagarria eta batzuetan faltsua sortu eta barreiatzeko makinak dira**, aldian aldiko aurkari politikoa lokazteko. Hitzaren frankotiratzaileen jardun ustelak dena lohitzten du ordea, eta bizi gaituen garaiarekin bat datorren paradoxa berezia eragin du: **kazetaritza inoiz baino zikinagoa da, kazetaritza inoiz baino beharrezkoagoa denean**.

H o r r e gatik, letra larriz idatzitako kazetaritza, independente, kritiko eta eraldatzailea, aldarrikatzeaz gain, praktikara eraman behar dugu. Eta horrek **ezinbestean kritiko izatea dakar inguratzen gaituen eta status quo-a betikotzen duen jardun periodistikoarekin**.



Axier Lopez
ARGIA aldizkariko kazetaria



Mesfidantza-sareak ehuntzen

Antzezlanak zentsuratzeko modu bat baino gehiago dago: **kontratuak deuseztatzea, aurrekontuetan ezusteko murrizketak egitearen ondorioz konpainiak bira bertan behera utzi behar izatea...**



Hori bai, badirudi eraso horien xedea beti direla gaur egungo egoeraren –edo giza izaerari gaur egun begiratzen zaion moduaren– ikuspegi kritiko bat plazaratzen duten lanak. Bestalde, herrialdeen historia ofiziala eratzean, iragan inperialista loriatsua goraiatzaren da, eta **azken urteetako gatazkei, berriz, “terrorismo” etiketa jarri ohi zaie.** Publizitate eta laguntza instituzionala udaletako eta eskualdeetako gobernuek beren komenentziara erabiltzeak **zalantzarik bihurtzen ditu programatutako literatura-azoka eta kale-antzerkien programazioak.** Hainbestekoa da kontrol-giroa, ezen liburutegietako eta unibertsitateetako programazioak ere haren eraginpean dauden. Sare sozialen bidez zorrotz zuzendutako kanpainak **abeslari, poeta eta komikoen ikuskizunetan ondorio latzak dituzte, eta etengabe erasotzen da ikerketa-kazetaritza fina.**

Aipatu berri ditugun elementu horiek *Russia's Strident Stifling of Free Speech* (2012-2018) [<https://www.pen-international.org/research/russias-strident-stifling-of-free-speech>] izeneko txostenetik ateratakoak dira, zeina Nazioarteko PENek eta Moskuko

PENek aurkeztu zuten 2018an. 2014tik aurrera etengabe gertatu diren ekintza zapaltzaileek sortutako giroak ekarri du, alde batetik, idazleak espetxeratu edo erbesteratzea eta, bestetik, Ukrainari eraso egitea. Nahiz eta askok uste mendebaldeko Europak ekialdeko Europan eragin handia duela, **duela urte batzuetatik hona mendebaldeko Europako eskuin-muturreko mugimenduak Vladimir Putinek Errusian arrakastaz probatutako adierazpen askatasuna ahultzeko metodoak ikasten eta aplikatzen ari dira.**

Gehiegizko klausulak dituen kontratu orok, galdutako publizitate orok, bertan behera geratutako kultura-ekitaldi orok pentsamendu kritikoaren kontzeptua bera eta egitateekiko errespetua perbertitzen dituen mesfidantza-sarea indartzen ditu. **Antzezlari bat, kazetari baten ikerlana edo artista baten ikuskizuna bertan behera uztea estrategia zabalago baten atal bat baino ez dira: orainaren eta mesfidantzaren arteko lotura estu bat sortzea eta iragana berridaztea, etorkizuna errealitate bizigarri gisa irudikatzeko**

aukera oro desagerarazteko. Horrela, ekintza zapaltzaile ugari elkarrekin lotuz, faxismoaren forma post-modernoak ehuntzen ari dira.



Carles Torner
PEN international-eko
Zuzendari Exekutiboa (2014-2021)



Elkarriketak



Martxelo Otamendi kazetariak, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berria* egunkarietako zuzendari ohiak, hurbiletik ezagutu du jazarpena. **Itziar Ituño** antzezlea eta **Iñigo Santxo** abokatu mintzo jarri ditu jazarpenaren inguruan.

Zuzenbidearen ikuspegitik, nola baloratzen duzu Itziar Ituñorekin gertatutakoa?

Eskubideen urraketa nabarmena da kasu hori, bere pentsamenduarengatik baztertu dute. Ez da onargarria bere adierazpen askatasuna mugatzea, lan kontratu bat oinarri hartuta. Kontratua egin aurretik enpresa horrek bazekien nor zen Itziar Ituño, pertsona publikoa delako, eta ezaguna delako nola pentsatzen duen, bere iritzia publikoa delako.

Horrelako kasu gehiago ezagutzen dituzu?

Bai, egon dira. Euskal aktore batek mundu mailako freskagarri baten iragarkiarekin, aktore emakumezko bat "Altsasu" serieagatik, Pirritx eta konpainia, Fermin Muguruza, Anje Duhalde bere garaian...

Bide juridikoa lantzeko aukera badago horrelako kasuetan?

Dudarik gabe, tartean kontratu sinatua baldin badago. Beste kontu bat da kaltetuak bide malkartsu hori jorratu nahi duen.

Arautu liteke adierazpen askatasunaren bermea antzeko kasuetarako?

Araututa dago, besteak beste, Europako Batasunaren Eskubideen Karta dago, Langileen Estatutua... Ituñok ez du delitu bat egin, giza eskubideen urraketa gainera adierazpen bat egin du, jarrera bat hartu du, eta hori guztiz errespetatu behar da.

Zer tresna daukagu eskubide horiek babesteko

Espainiako eskuinak badauzka elkarte batzuk, plataforma batzuk haien kideen eskubideak defenditzeko, Dignidad y Justicia eta horrelakoak. Dirulaguntza handiak badauzkate, abokatuak kontratatzeko aukera ere badaukate, eta etengabe ari dira salaketak jartzen lobby juridiko bat daukatelako antolatuta. Horretarako daudelako. Ezkerrak ez dauka halakorik, eta eskubidearen urraketa pairatu duen herritarrek ez dauka babesik ezta zerbitzu horiek eskainiko dizkion egitura antolaturik ere; bere kabuz egin behar du dena. Hor desoreka handia dago.

Lobby juridikoa antolatu beharko luke ezkerrak?

Ez bada lobby bat, bai gutxienez egitura bat babes juridikoa eskaintzeko, kaltetua bakarrik egon ez dadin. Norberak egin behar badu, kostua handia daukate prozesu juridiko horiek.

Iñigo Santxo
Abokatua





Ni izaten segituko dut, ez naute isilduko



Itziar Ituño
Antzezlea

Isildu nahi ez duen kasuetan bere iritzia publikoan agertzeagatik kanpaina gogorren biktima izan da Itziar Ituño aktorea. Azkena, urtarrilean Bilbon euskal preso politikoen aldeko manifestazioan parte hartzeagatik. Auto marka saltzaile batekin zeukan hitzarmena eten zioten horren ondorioz.

Zure aurkako kanpaina bat baino gehiago jasan duzu?

Lau denetara. Lehena, *La Casa de Papel* telesailan hasi nintzenean, baina hark ez zuen izan lan ondorioz telesail horretan. Bigarrena, auto saltzaileak haiekin neukan publizitate kontratua eten zuen euskal preso eskubideen aldeko manifestazioan parte hartzeagatik. Hirugarrena, arrazoi beragatik, IBERIA hegaldi konpainiak nire irudia kendu zuen bere publizitatetik.

Eta laugarrena?

Duela gutxi Lleidan, ekitaldi batean, Fermin Muguruzari jasaten ari zen eraso zela eta elkartasuna adierazi, eta haren omenez *Sarri Sarri* kantatzeagatik... berriro jardun dute nire aurka.

Hirugarren horrek eduki ote du lan ondorioz?

Espainiako telebista pribaturik handienarekin sinatzear neukan kontratua, bat-batean, jausi egin zen. Esan zidaten norbaitek erabaki zuela nire pertsonaiaren adina 10 urtez gaztetu behar zutela, eta ni gabe egingo zutela.

Lotura eduki lezake zure aurkako kanpaineekin?

Oso susmo sendoa daukat azken kanpainaren ondorio izan dela.

Nola bizi duzu zure nor propioa edukitzeko daukazu eskubidea pertsona publikoa izatearekin, eta lanarekin?

Eskubide kolektiboen alde egiteagatik, zigor indibiduala jasotzen duzu. Profil publikoa daukagunoi gertatzen zaigu. Gogorra da, zergatik isildu behar dut nik, badakit ondorioak edukiko dituela; onartuko ditut ondorioak, baina ez naiz isilduko. Mehatxuak jaso nituen, eta salaketa jarrita daukat epaitegian.

Jende asko etorriko zaizu kausa baten aldeko inplikazioa proposatzen.

Bai noski, asko. Baina nik erabakitzen dut zeinetan sartu.

Elkartasun handia jaso duzu, bai Euskal Herrian eta kanpoan.

Bai, hala da. Oso eskertuta nago elkartasuna adierazi didatenekin, oso eskertuta. Gainera, harrituta nago kanpotik zenbat maitasun mezu iritsi diren nire aurkako azken kanpaina salatuz; auto saltzailearen boikotak eduki zuen oihartzunaren ondorioz, seguruena.

Boikotak boikot, segituko duzu zure iritzia publikoan ematen zure ustez beharrezkoa denean?

Horrela segituko dut, hiltzen naizen arte.



Zentsura isila, benetako mehatxua (besterik gabe?)

Belaunaldi honetan, aurreko belaunaldi guztietan bezalaxe, zalantzak sortu dira adierazpen-askatasunaren esanahiaren inguruan, eta ildo horretan, **bereziki konplexua da egunerokotasunean zentsura nola baliatzen den ulertzea**. Hala, ezinbestekoa da zentsura noraino iristen den konprenitzea, eta horretarako, botere-harremanak, -desorekak eta -desparekotasunak kontuan hartzea.

Gaur egun, **zentsura ez da soilik liburu edo pieza artistiko jakin batzuk debekatzea**; beste modu batzuetan ere ezartzen da. Esaterako, **Mozal Legeak eta Kode Penalaren 2015eko erreformak atzerapauso handia eragin dute** giza eskubideen arloan. Hori dela eta, beharrezkoa da lege horien aurka gure exigentzia, iraunkortasun eta buru-zorroztasun guztia baliatzea, nahiz eta hainbeste urtez egoera salatzen eta gizarte-mobilizazioa bultzatzen aritu ondoren nekea nabaria izan.

Zentsura ageriko hori bezain kezagarria da, ordea, nik **zentsura isila deitzen dudana**: mota horretako jazarpen ideologikoak ondorio errealak ditu errepresaliatuarengan, baina ez dauka gizarte-zibilaren salaketa sendoa jasotzeko adina ikusgarritasunik. Zentsura isilaren adibidetzat har daitezke adierazpen askatasuna eta giza eskubideak defendatzen dituzten **fundazio eta elkar-teei aurrekontu nahikoa ez esleitzea**, komunikabideetan agertuko ez diren murrizketa txikien metaketak eta abar. Komeni da arretaz aztertzea zer idazle eta artista gonbidatzen dituzten festibaletara, nork osatzen dituen epaimahaiak eta zer instituziok jasotzen duten finantzaketa zuzena, hala, hobeto ulertzeko horiek hautatzeko irizpideek zer duten oinarri,

aniztasun ideologikoa ala uniformetasuna, beti gogoan izanik «aldeko ez kontrako adierazpenik ez egitea» uniformetasun mota bat dela berez.

Zentsura isila jardunbide estrukturala da. Botere-ardatz nagusiei mesede egitea du helburu, eta administrazioak edo erakundeak botere horien menara kudeatzean datza. Publizitate-kontratuak bertan behera uztea eta norbanakoei beren iritzia publikoki adierazteko mugak jartzen dizkieten klausulak sinaraztea, adierazpen askatasunaren urraketa larriak dira eta. **Itziar Ituñorena oso kasu nabaria da**, eta horrenbestez, ezinbestekoa da gertatutakoa ezagutaraztea; izan ere, euskal presoen aldeko manifestazioetan parte hartzearen kontratu bat baino gehiago galdu ditu aktore euskaldunak. **Zer gairen inguruan manifesta gaitezkeen mugatzea zentsura zoli eta estrategiko baten parte da**, eta gainera, beste pertsona askorengan ere eragina du. Herri-tar ekintzaileei ezarritako zigorraren disuasorio-efektuak **gainerako herritarrentzako ohartarazpenak ere badira**. Elkartasuna eta salaketa behar-beharrezkoak dira giza eskubideen arloan lortutako lorpen historikoetan atzera ez egiteko.



Laura Huerga
PEN Catalá-ko presidentea